


# *ttipi-ttapa*

1993.eko Apirilak 8

107. zenbakia

dohain banatzen da



**BORDATXO KRISIAN?**

5.400 Harpidedun  
18.500 Irakurle \*

***ttipi-ttapa***

**HAMABOSTEKARIA**

\* Datu iturria: Nafarroako Gobernuak egindako audientzia estudioa

# non - zer

- 
- 4** **AGENDA** Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.
- 
- 7** **HONTAZ ETA HARTAZ**
- 
- 8** **IRAKURLEAK MINTZO**
- 
- 9/24** **HERRIZ HERRI**  
Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Bertizarana, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta...
- 
- 25** **KIROLAK:** 200 korrikalari Lesakako I. Herri laisterketan. Joseba Sarriegi izan zen txapeldun maila nagusian.
- 
- 26** **ERREPORTAIA:** Lapurtarren deportazioak gogoratu, omenaldia eskeiniko zaie Saran Bazko astelehenez.  
Xipri Arbelbiden testuan oinarritua
- 
- 28** **ELKARRIZKETA:** Tomas Ezkurra: «Krisia Bordatxora ere ailegatu da»  
Joxemanuel Irigoien
- 
- 30** **MERKATU TTIKIA**
- 

## ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85  
Tirada: 5.400 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1  
31780 BERA  
Tfnoa.: 63 11 88  
Faxa: 63 12 91

**Erredakzio arduraduna:** Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karmele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Patxi Larretxea, Pello Apezetxea, Edurne Rekondo, Bittori Telletxea **Ale honetan parte hartu dute:** Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Marta, Mirari, Txema Aldabe, Ixabel, Josune, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Juainas, Koro Irazoki, Margari, Pello Etxegia, Daniel Martiarena, Txema Urrotz, J. Igarabide, Pablo Mendiburu, Juana Mari, Mixel, Jacqueline, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi eta Mattari-k. **Argitaratzailea:** *ttipi-ttapa*. **Laguntzaileak:** Bortziritako Euskara Mankomunitatea, Nafarroako Gobernua....

**Inprimategia:** Gertu Kooperatiba Elkarte (Oñati)  
*ttipi-ttapa* aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

**Beharrezko telefonoak**

SOS Nafarroa /Urgentziak...088/061

**OSASUN ZENTRUAK**

Elizondo.....452367 / 580235  
 Doneztebe .....450300  
 Lesaka.....637428/637336  
 Leitza .....510248 / 510573

**KONTSULTAK**

Arizkun .....453039  
 Gartzain .....580451  
 Oronotz-Mugaire .....592024  
 Ituren .....450183  
 Sunbilla .....450283  
 Goizueta .....514067  
 Igantzi .....637755  
 Arantza .....634131  
 Bera..... 630929 / 630036  
 Etxalar.....635105  
 Urdazubi.....599130

**ANBULATORIOAK**

Irun .....630264/621106

**OSI ITALEAK**

Irungo ospitalea .....614600  
 Nafarroako ospitalea .....102100  
 SSko urgentzi zerbitzua .....246750  
 Virgen del Camino  
 erresidentzia .....109400  
 Gurutze Gorria.....226404

**ANBULANTZIAK**

Oitz .....450242/450805

**DYA**

Lesaka (larrialdiak).....(943)464622  
 Doneztebe (larrialdiak).....171717

**FUNERARIA**

Lesaka.....637404  
 Elizondo .....580924

**SUHILTZAILEAK**

Oronotz-Mugaire .....592044

**GARRAIOAK**

Bidasotarra .....630279  
 Baztanesa .....580129  
 Leitزارan .....515018

**HIRUGARREN ADINARENDAKO ZENTRUAK:**

Elizondo .....580730  
 Lesaka .....637154  
 Bera .....630261

**ABERIAK:**

Iberduero .....450335/450336

**W Botikak**

► **Apirilaren 8an,** Etxalar, Sunbilla eta J. Iturralde (Elizondo).

► **Apirilaren 9an,** Bera, Sunbilla eta F. Lezaun (Elizondo).

► **Apirilaren 10ean,** Bera, Sunbilla eta J. Iturralde (Elizondo).

► **Apirilaren 11an,** Bera, Narbarte eta J. Iturralde (Elizondo).

► **Apirilaren 12an,** Arantza, Narbarte eta F. Lezaun (Elizondo).

► **Apirilaren 17-18an,** Arantza, Ituren eta F. Lezaun (Elizondo).

**W Deialdiak**

► **ARANTZA,** apirilaren 8an, Euskara Batzordearen bilera.

► **BERA,** apirilaren 13an, Euskara Batzordearen bilera.

► **ETXALAR,** apirilaren 21ean, Euskara Batzordearen bilera.

► **ETXALAR,** apirilaren 22an, Euskara mankomunitatearen aholkularitza Batzordearen bilera.

► **SARA**  
 EUSKAL IDAZLEEN  
 BILTZARRA  
 Apirilaren 12an, Kirol Aterpean

► **SARA**

Apirilaren 12an eguerditan, frantses iraultza garaian depotatutakoen omentzearekin 6etan kantaldia elizateko.

**W Bertsoak**

► **SUNBILLA**


Apirilaren 11an arratsaldeko beta frontoian, bertso saioa.

**Bertsolariak:** Egaña, Sarasua, Peñagarikano, X. Lizaso, Euzkitze eta Murua.

**Gai-jartzaile:** Bitte Elizagoien.

**Antolatzaile:** Sunbilla Herri Kirol taldea

**W Bota bertsoa**



**Estitxu AROZENA**

Bortzirietako Bertso Eskolako

**Gaia:** Emakumeak bertsolari

**Neurria:** Hamarreko Haundia

Hasieretan batzuk zioten "gizonen papera betez" esaldi hori ez da egia esan dugu baino nekez nahiz eta egin guregaitan ez da gizartean kalte berdintasuna hitz polita da eta diot aho batez beste arlotan iritsiko da ta bertsoan zergaitik ez.

Agian batzuen pentsamendua izango denez iluna nik esango dut arin daiteke orain dagona astuna nahiz badakigun gure bidea ez dela hagitz biguna iritsiko da denon artean gorai patuko duguna emakumeok bertsolaritzan arraro ez den eguna.



# AGENDA

## Zinema

### ► DONEZTEBE

Apirilaren 10-11an "El robo de la joya".

### ► LEITZA

Apirilaren 9an 7etan eta 11an 5etan "Sólo en casa II". 11an 8etan "El silencio de la sospecha". Ap. 16an, 10,30-etan eta 18an 8etan "Drácula". 18an, 5etan "Los blancos no la saben meter".

## Erakusketak

### ► ELIZONDO

Arizkunengan apirilaren 2tik maiatzaren 2a arte, Fernando Gorostidi margolaria.

## Antzerkiak

### ► ELIZONDO

#### KAFE-ANTZERKIA

Karrika ostatua: apirilaren 10ean, 9,30etan, Juan Gabriel (magia).

C. Deportivo Baztan ostatua: 16an, 9,30etan 'Lourviers' taldea.


## Gastronomia

### LEGATZ ISATSA LABEAN ERRETA

#### Osagaiak 4 lagunendako:

Legatz kilo bat, gatza, oliba olio, tomate, tipula, baratzuria, limoia eta perrexila.

Legatza garbitu azala ere kenduz eta labeko ontzian paratu. Gatza, olio burrunzalikada tiki bat eta xerretan puskatutako bi to-



Mª Jesus ELIZALDEk emana - Etxeberria Jatetxea - ARIZKUN

mate gaitetik paratu eta inguruan, tipula puxka bat, ba-

ratzuria, hiru limoi puxka eta perrexila jarri.

40 minutuz labean sartu su fuertean. Bandeja batera ateri, arrai hezurra kendu eta ontzian dagoen guzia txinotik pasatu, berriz legatzari botatzeko.

Apaintzeko, limoi eta tomate xerrak, batzuk berztearen ondoren paratu inguruan eta gaitetik perrexila.

## Baserriko feria



### ► ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 kilokoa): 4.750 pzta. Zerri gizona (95-100): 130 pzta/kilo Zerramak: 60-80 pzta./kilo bizirik.

### ► BEHIKIA

#### •Aretze gizenak:

Idixkoak: Pzta/kg. Kanal Extra.....565  
1.koa.....545  
2.koa.....520

Urruxak: Pzta/Kg. Kanal Extra.....575  
1.koa.....555  
2.koa.....535  
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkatena idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

#### •Behi zaharrak:

Behi nabar gizona: 370 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 400-450 Pzta/Kg. Ka-

nal.


#### •Aretze tikiak

(15 egun inguru):

Nabarrak: urruxak 17.000 eta idixkoak 27.000 Pzta.

Mestizoak: urruxak 30.000 eta idixkoak 40.000 - 42.000 pzta.

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa



MALDAERREKA S.A.

«La Suiza»

Aseguro mota guziak

Bittiria karrika -Tfnoa: 637404- LESAKA

# LEGARRA

PAPERTEGIA  
TABAKOAK  
LIBURUAK  
OPARIK

Legarrea 9, Tfnoa: 637030 LESAKA



MUSIKA DENDA

BERA ☎ 631059

- Diskoak,
- Metodoak,
- Musika-Tresnak,
- HI-FI soinua,
- Soinu Profesionala,
- Ekipoen Alokairua...



## W 11 galdera Ilabur

## W Zinema



### ▶ Ana Gartzitorea

Berroetako alkatea eta kirolaria

#### ▶ Zergatik aurkeztu zinen alkatetzara?

Berroetan alkate gaztea behar delako.

▶ **Bizitzeko, Baztan ala Gales?** Baztan. Bakoitza bere txokoan.

▶ **Eskubaloia, pilota ala sokatira?** Momentuan sokatira, gehien gustatu halere, eskubaloia.

▶ **Alkatea ala kirolaria?** Kirolaria izatea errazago da, alkatea garrantzitsuagoa.

▶ **Telebista ikusi ala kirola egin?** Kirola egi.

▶ **Etxeko lanetan ala albaitero-dendan?** Komertzialan lan egitea nahiago.

▶ **Trikitixa ala rock-a?** Trikitixa eta kantautoreak.

▶ **Sagardotegiak ala Bordatxo?** Jatetxe batetan lagunekin afaldu nahiago dut.

▶ **Zer da mutil batean gehien gustatzen zaizuna?** Umorea, mutil umoretsua izan dadila.


▶ **Feminismoa, bai ala ez?** Gauza batzutan beharrezkoa da oraindik.

▶ **Zer aldatuko zenuke Berroetan?** Herritarren arteko harremanak.

### ▶ Juego de Lagrimas Irlanda - 1992

Biolentzia eta gogorkeria filmak zetazko hariez lotu omen daitezke gusto ona eta jakintza zaharraren laguntzarekin, filma ederrak bihurtuz. Horrelaxe erantzuten du Neil Jordan zuzendariak bere azkenlari buruz zerbait galdetzen diotenean. Begi argi eta belarri zabala eskatzen du filma honek, hasieratik pertsonaien egitura-rik xehenek ere garrantzitsuak baitira.

Lehen ordu erdian zinema estua eta erabe-rean zabala, emozionalki



Neil Jordan

sakona. Bi gizonen arteko mugabeko adiskidetasuna. Bat IRAko irlandar militantea eta bertzea ingeles soldadoa IRAk baitua. Bien artean neska bat eta maitasunaren

ezinezko arauak. Neil Jordanen filma guztietan agertzen diren pertsonaiak behar ez luketen jendetaz maitemintzen dire eta dotoreki lantzen ditu arazo horiek.

Bere filmarik

nabarmenen 'Mona Lisa' izaten. Gorakad haundia emazion Neil-i et munduaren atea zabaldu. Ipa amerikar suert haundirik gabekubi saiakera egi eta gero Irlanda ra itzuli denean egin du 'Juego de Lagrimas' eta berehala munduan zabaldu.

Eman berridiren Oscar-etarako merizitakosei aipamen zituena filma honengatik. Bat bakararra lortu du (gidoi berezia) IRA eta sexu kutsukoakez dira Oscar emaileen gustokoak eta haiek agintzen dute artearen gainetik.

MARIANO

**CLAAS S. Semper**



**SAME**

**Nekazal Tresneria**

Salmenta eta konponketa tailerra

Ergoien auzoa, Tf.: (943) 490619 - OIARTZUN

BERAn, 631238Tfnoan, Agerra Industrialdean

**GRUPO ZURICH**



**ASEGURO OROKORRAK**

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

**ZIZKA OSTATUA**

**Martxa eta mozkor saltsa**

Altzate 28 - BERA

**TXOKO erretegia**

**Bazkari, afari eta gosariak**

ITUREN - Tfnoa: 45 04 91

## Baserrietan telefonoa jartzea merkeago izanen da

Nafarroako Gobernuak Telefonicarekin firmatu duen akordio baten arabera, hurrengo hiru urteetan posible izanen da Nafarroako baserriak urrunetan ere telefonoa jartzea. Orain ere, posible posible zen, baina telefono haria urruneko baserrietara eramatea arraz garestia gertatzen zen. Hemendik aintzineraz or-

dea 'Telefono Mugikor Automatikoaren sistema' erabiliko da. Lehen milioi erdi pezeta kostatzen zena orain 25.000 kostako da. Bortzirietan aurten hasiko dira telefono hauek jartzten. Dena dela, Telefonica bera arduratuko da telefonorik ez duten baserriei eskeintza egiteaz. Informaziorik nahi izanez gero deitu 108117ra.

## Langabezia eta desindustrializazioak Bera eta Lesaka batu zituen



Mila pertsona inguruk burutu zuten joan den martxoaren 27an, enplegu eza eta desindustrializazioaren aurka, ELA eta LAB sindikatuek konbokatutako Bera eta Lesaka arteko martxa.

Bi sindikato hauetako ordezkariak gain, Laminaciones-eko ESK eta CCOOek ere parte hartu zuten, inguruko alkate gehienak eta alderdi ezberdinetako politikoekin batera.

Manifestaldia bukatuta irakurritako idatzian, ELA eta LABek adierazi zuten, "gobernu autonomikoak eta enpresariak ez dute ezer egiten gure eskualdea berrindustrializatzeko eta eskualdean enplegua sortzeko". Azkenik, gaur ditugun lanpostuak mantentzea lortzen ez badugu eskualdeko giza bizitza ezarierian gainbera joan daitekela gaineratu zuten bi sindikatuak.



Nafarroako Bertsolari Txapelketaren finala igande honetan ospatzekoa zen Iruñan. Zortzi finalistetatik lau 18 urtez behitikoak.

### INFORMAZIOA:

- ✎ Nominak
- ✎ Aseguro Sozialak
- ✎ Lan-kontratu bonifikatuak
- ✎ Enpresa berrien sortzea
- ✎ Diru-laguntzak
- ✎ Errenta Deklarazioak
- ✎ Kontabilitateak

## ARTEKARI S.L.

ASESORIA FISKAL ETA LABORALA

KONTSULTAK, AINTZINETIK ORDUA ESKATUZ

### LESACA:

- Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
- Non:** MALDAERREKA S.A., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

### IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L, Tfnoa: 17 55 40
- Non:** Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.



## EZKURRAKO HERRIKO ETXEAN DENAK ITSUTUAK?

Ezkurrako Herriko etxeko gizonak itsutuak daudela edo kalera ez direla ateratzen iruditzen zait. Elizara eramaten duen bidean, kotxe-ko "bajoak" edota anka hausteko beldurra izanen dute, akaso?

Bide honen egoera, gaur egun, penagarria da, zuloz josita bait dago. Elizeko bidetik pasatzerakoan gogoak joaten

zaizkio edozeini, karro bidea iduri due-lakoz.

Nire ustez, Udal-letxearen erresponsabilitatea da. Problema, dirua baldin bada, egurra saldu, laguntzak eskatu Iruñean edo auzolan bat antolatu, baina zer-bait egin beharko da.

Itsutuak baldin bazaudete, Iparral-

dean ongi ikusteko operazio merkeak egiten dituzte



Ezkurrako ahuntza  
M. A.: 72.646.781

## NATURA MAITE DUTENEI

Zuri! Bai, zuri! eta hiri, eta zuei baita ere Zer? Bada "Lainope ingurugiro taldea" sortu berri-berria dela

Larunen magalean. Ingurugiroarekiko kezka nagusi diren bide malkartsu honetan ttapa-ttapa hasiak garela.

Taldea sendotzen edo indartzen laguntzeko prest zaudeten guzien beharrear egonik, ongi etorriak izanen zaretela. Hala, zuen lana, ideiak, kezka, proposamenak (kritikak geroxe-ago) gogotik hartuko ditugu.

Oraingoz bilerak hamabortz egunetik behin, asteazkenetan arratsaldeko 8etan

eginen ditugu Gure Txokoan (hurrengo bilera apirilaren 21ean izanen da).

Tarteka gure berri-erik ere izanen duzue aldizkari honen bidez, denentzat baliogarri izanen dela espero dugu.



«Lainope»  
ingurugiro taldea

## Masaia eta bizkortze ariketak

### Txomin Irazoki (Fisioterapeuta)

Astelehen, asteazken eta ortziraletan, 15,30etatik aintzinera  
Astearte eta ortzegunetan, 9,30etatik 13etara eta 14,30etatik aintzinera  
Eztegara 24, Tfnoa: 63 13 91 - BERA



### KIROLAK ZELA

Altzate 6, Tfnoa: 63 05 98

BERA

# OKAVE

Haragi, janari-izoztu, enbutido, jogurt...

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - BERA

## SAROB

### okindegia



SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA



## MOLINERO PINTURAK

Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio problemak moldatuko dizkizugu eta gainera, barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoen araberrako prezioetan.

Eztegara 19 - ☎ 63 02 40  
BERA

## EKAITZA OSTATUA

Altzate - BERA



### Lopez Borderias kontseilaria udalarekin bildu zen

Altzateko saihebidiaz 'sorpresaren bat' emanen omen du epe labur batean

JOXEMANUEL IRIGOIEN

Lopez Borderias, Herri Lan kontseilaria, udal ordezkariarekin bildu zen martxoaren 25ean. Gai ezberdinetaz hitzegin bazuten ere, ez zuen aparteko xehetasunik eman Lizunia-gako pasoaren hobetzeaz eta Altzateko saihebidiaz edo bariantez. Halere, Manuel Iriarte alkateak adierazi digunez, 'aste bartzuren barnean sorpresaren bat emanen digula gai horretaz' erran omen zion kontseilariak.



Lopez Borderias, Herri Lanetarako kontseilaria, Berako Herriko Etxean egon zen lan bilera batean.

### ttipi-flash

□ Berako Suhiltzaileen parkeak bertze bi ibilgailu izanen ditu hemendik aintzinerara. Horrela bada, guzira lau ibilgailu ditu: bi zisterna (bat 4.000 litrotakoa eta bertzea 1.500ekoa), Land Rover bat eta Patrol bat. Azken honerik ekipaturiko erremolkea (mangera, bonba...) lotuko zaio behar izanez gero.



Apirilaren 4ean bete da urte bat **Roman Harribilaga** lankidea hil zenetik. Bere omenetan, lore eskeintza bat burutu zen joan den igandean bere hilobian.

### Bera-Urruña topaketen barnean, Gelos-en erakusketa Kultur Etxean

Apirilaren 17tik 25a bitarte, Rene Paul Gelos Urruñako artista ospetsuaren 25 eskultura eta 45 margo ikusgai egonen dira Kultur Etxean.

Bertzalde, apirilaren 18an, igandea, Urruñakoak bisitan etorriko zaizkigu. Goizeko 10,30-

etan ongi etorria emanen zaie Gure Txokoa. Segidan Berako elkarteak, Musika Eskola, Herriko Etxea eta eliza erakutsiko zaizkie, Iamotenean eginen den bazkariarekin bukatzeko. Aktibitate guzi hauek Beratar guzientzat irekiak daude, jakina.



## BERAKO UDALAK

**Kontuhartzailearen aldibaterako kontrataziorako dei publikoa egiten du**

### BALDINTZAK

- Enpresa edo Ekonomia Zientzietako edo Zuzenbide Diplomatua izatea
- Euskarazko ezagutzak izatea, ahozkoa eta idatzizkoa.

### ESKAERAREN AURKEZPENA

Epea: Apirilaren 13a, eguerdiko 12ak arte, Berako Herriko Etxean

Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu Berako Herriko Etxera, 630005 telefonora, 8etatik 15,00ak arte.

## GOYA


JOSTAILUAK  
JANTZIGINTZA  
OPARIAK  
BURDIN TRESNERIA

Altzate, 5 Tfnoa: 630083 BERA




Legia 11 - 63 06 64 BERA

## BOAN TAILERRA



KOTXE BERRIEN  
ERAKUSKETA ETA SALMENTA  
Herriko Etxeko Plaza - BERA



## LIKIDAZIOAK

San Esteban 37, Tf: 631063 - BERA



LESAKA

Ipuin eta bertso paper lehiaketak antolatu ditu ikastolak

Apirilaren 20a baino lehenago igorri beharko dira Tantirumairura

AITOR AROZENA

“X. Txoko-txiki” ipuin eta bertso paper lehiaketa antolatu du Tantirumairu ikastolak herriko partaidentzako.

Ipuinen gaia librea izanen da, 2-3 mailakoak orrialde bat bete beharko dute, 4-5 mailakoak orrialde terdi eta bigarren etapakoak bi orrialde guttienez.

Bertso lehiaketa, berriz, 4. mailatik aintzinakoen zatitza antolatu da. 4-5 mailakoak lau kopia edo bi zortziko txiki eta bigarren etapakoak hiru bertso nahi duten doinu eta neurrian honako gai honi: “Ikastolako azken zozketan, oihanara bidaiatu zaizu”.

Bertsoak eta ipuinak goitizenez zinatuz eta bertsoetan erabilitako doinu eta neurria idatzi. Bertze aparteko orri batean egilearen datuak paratuko dira.



Akordeolari bandak lehen saria lortu zuen 27. Nazioarteko Lehiaketan Montpellierran

Lesakako Akordeolari bandak lehenbiziko saria, diploma eta epaimahaia- ren aipamen berezia lortu zuen martxoaren 13-14ean Frantziako Montpellier herrian burututako Nazioarteko akordeoi Lehiaketaren 27. edizioan.

Kontutan hartu behar da, lesakarrak gain, Frantziako eskualde guzietako

eta Donostiako 300 akordeolari inguruk parte hartu zutela lehiaketa honetan. Arrakasta hau, entsaio ordu eta lan aunitzen emaitza izan da.

Sari honekin batera, Salvador Madariagak zuzentzen duen taldeak datorren maiatzan Parisen eginen den finalerako txartela ere eskuratu zuen.

ttipi-flash

□ **Kinto bazkaria** eginen dute Irubiden maiatzaren 1ean, 1969, 70 eta 71an jaiotakoak. Apuntatzeko Koskillan eman izena.

□ **EAKo** udal taldea larunbatetako musikaren kontra agertu da, jendeari eritzia eskatu bitartean behinipein. EAren ustez, guraso elkarteei, Plaza Zaharrean eta ostatuak dauden lekuetan bizi direnei kontsultatu behar zaie, baita alkoholaren arazoa eta leku publikoen ordutegia aztertu.

□ **Alguazil** lanpostua betetzeko lan eskeintza publikoa luzatu du Udalak. Guttieneko euskara maila ez dela esijitzen eta protesta azaldu zuen EAK. Gizonezkoak 1,70 metro altuera eta emakumezkoak 1,65 neurtu beharko dute postua betetzeko.

KOSKILLA

OSTATUA

Larunbatetan mus txapelketak sari ederrekin

Zarandia 4 - LESAKA

IRUBIDE

OSTATUA ERRETEGIA

Tfnoa.: 63 71 27 LESAKA

XATURET XEA

FONDA

Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA



\* KIXKUR \*  
ILEAPAINDEGIA

Bittiria Tfnoa.: 637429 - LESAKA

EROSLE

LESAKA

Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena

Frexkuena zugandik hurbilago

Bittiria 67 - Tfnoa.: 637264

## Udalak aduanako etxola berreskuratu nahi du

Bertzalde, herriko bizilagunak ugaritu egin dira

ANABEL eta ALBERTO

Europar mugak ideki direla eta, Gobernuak, aduana eta mugetako instalazioekin zer egingen duen laister erabakiko du. Hemen, Lizarietako mugako postua aurkitzen da. Beronen historiaren arabera, 1896ko urtarrilaren 23an, Udalak, Lizarietan egoten ziren karabineroei hango etxola uztea erabaki zuen, denbora txarra egiten zue-nean idorpe bat izan zezaten. Orain, etxola hau herriko lurrean dagoela kontutan hartuz, Udalak berreskuratu nahi du.

### Bizilagun gehiago

Etxalarren 874 biztanle gara. Hori da urte hone-



Egun gutti barren ikusiko dugu argazkikoa errepikatua, Bazko igandean: bataio ondoren haurrak goxoki bila bilduak elizako atean

tako lehen egunean udal erroldan agertzen dena. Aintzinekoan, berriz, 1991koan, 859 ginen.

### Bideen breaztatzea

Baserrietara doazen bide batzuk oraindik

breaztatu gabe daudenez, Udalak Nafarroako Gobernuari dirulaguntza eskatu zion, eta 1993-95 hirurteko planean sartu; 120 milioi pezetako kostua denetara. Orain, ordea, diru-

rik ez dela eta, proiektua murrizteko eskatu dio Gobernuak Udalari, preferentzia duten bideak aukeratzuz. 47 milioitara jeitsi behar izan du aurrekontua.

### Altxata elkartearen Batzar nagusia

Urteko kontuak, egin diren ekintza zerrendarekin, aintzinetik igorria zuen etxera batzarkide bakoitzari. Bilerako gai aipagarrienak honako hauek izan ziren: aurten egin beharrekoen programa eta areto haundiago baten beharra. Eskola zaharrak bat egitearen eskakizuna berri nahi dio elkarteak Udalari, antzerki, kontzertu eta antzeko gauzatarako nahi-taetzko jotzen baita.

## ARRATZUBI ardotegia

Tfnoa.: 63 72 79  
Bittiria karrika - LESAKA

## EKAITZA CAFE

GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Lagunekin elkartzeko  
toki egokia

Tfa: 948 - 627547  
Plaza Berria 13 - LESAKA

### «USA»

NEKAZARI KOOPERATIBA



Ganaduarentzat  
pentsurik egokiena  
Tfnoa: 63 52 14  
ETXALAR

## ALBARTETXEA JATETXEA

Otordu goxoak sutondoan  
Asteartea itxita

Antoiu 26  
Tfnoa: 948-627622  
LESAKA

## KOXXKONTA



Sagardotegia  
ZABALIK

Deitu  
erreserbak  
egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - LESAKA

## ARRANO



OSTATUA

Legarrea - LESAKA

IGANTZI

# Club arteko pala txapelketan Biltokikoak erdi finaletan


Aita Lasa frantziskarra hil egin da, bertzalde

OSKAR TXOPERENA

Orain arte deus aipatu ez badugu ere Biltokiko bi talde dira Euskal Herri eta Errioxaren artean jokatzeko ari den Club arteko txapelketan parte hartzen ari direnak. Palaz jokatzeko dute bi taldeek eta alde batetik Iñaki Hita, Inbuluzketa eta Odriozolak osatzen dute taldea, bertzea Salva Lizardi, Jose Ramon Etxeberria eta Arzelusek osatzen dutelarik. Erran bezala, erdi finaletan daude eta hiru kanpotar horien laguntzarekin faboritotzat jo daitezke txapelketan.

## Aita Lasa hil da

Norke ez ditu gogoratzen San Juan Xarren aita Lasa



Guti falta zaie pizsinan ormigoia botatzeko. Eskertzekoa da "Cantarras de Yanci" k Igantziko herriari obra honekin egiten dion eskeintza, udalarekin lortutako akordio baten arabera guztia berak egiten baitu



Iribarregobordako pistatik errepidera izandako erortza moldatu dute Mariezkurrenaren langileek

frantziskotarrak egindako sermoiak? Urte sailaz ikusi ez badugu ere, urtero etortzen zen denbora batean San Juan egunean. Martxoaren azken egunean hil zen Arantzazun 90

urte inguru zituela.

## Kinto besta

Martxoaren 28an beren besta egin zuten 1928 eta 1929an jaiotakoak. Besta eguna meza eginez hasi zuten, hala eskeini baitzie-

ten hildako beren kintoei.

Ondotik, 30 lagun bildu ziren Herriko Etxean bazkaltzera bere bikotea eramaten ahal zutela kontutan harturik. Egun ederra pasatu zuten.

## ZALAIN JATETXEA

Eguneko menua eta karta

Boda eta banketeak ematen dira

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06 **BERA**



Loradenda, bitxikeriak, opariak, eskulangintza

Bitiria, Tfnoa: 62 75 42  
**LESAKA**



## KATTU

OSTATUA  
JATETXEA

- Karta
- Eguneko menua

Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 • **LESAKA**



## ORDOKI

## ALTZARIAK

Estilo guztietako mogleak

ERAKUSKETAK:

Bitiria 30 eta Plaza Zaharra 26

SALMENTAK: Plaza Zaharra 27

Tfnoa: 637034 - **LESAKA**

Larunbat  
arratsaldetan  
zabalik

## Telletxea anai-arrebak bertsolarien finalera ailegatu ziren

Nafarroako III. Jolas Kiroletan, bertzalde, infantilak garaile proba konbinatuan

MIRARI eta MARTA

Hiru aurkeztu bertsolari txapelketara eta bi finalera pasatu. Ez da ez marka txarra.

Luis Etxeberriak eta Aitor Telletxeak uste hainako bertso saioa egin zuten Berako azken kanporaketan. Luisitok azken bertsoan erran bezala, arras estimagarriak izan ziren jendearen oihu eta animoak. Azkenik Luisitok seigarren postua lortu zuen. Aitor berriz, justu baina finalerako klasifikatu zen, Amaiaren ondotik. Igande honetan Iruñeko Gaiarre antzokian burutu den finalerako ez zuten esperantza haundirik, baina nork



Aitor kantari eta Luisito aditzen, Beran elkarrekin egindako saioan

daki... finalera ailegatzeko itxaropenik ez zuten, eta begira!

### Eskolakoak ETBn

Eskolako haurrak Euskal Telebistan egon ziren aldi hartan, 7etan ETBn

izaten den Galaktika programan. Apirilaren 12tik 16rako astean agertuko omen dira. Gainera sari koxkorrekin bueltatu zirela jakin izan dugu, halere hobe zuek ikustea.

### Herri Kiroletan ongi hasi dira ttikiak

Berriozarren egindako proban estreinatu ziren aurtengoan herri kirol taldeko ttikiak Nafarroako III. Jolas Kiroletan.

Infantilak, lehenbiziko postua lortu zuten proba konbinatuan, Sunbilla, Ultzama, Araiz Betelu eta Berriozarren aintzinetik eta bigarren postua sokatiran, Ultzaman gibeletik eta Araiz Betelu eta Berriozarren aintzinetik. Kadeteak berriz, azken postuan gelditu ziren proba konbinatuan.

Arantzan egindako proban ere lehenbizikoak gelditu ziren infantilak konbinadan.

## ETXEGARAI BIDEO KLUBA

Eztegara 4, Tfnoa: 63 05 70 - BERA

Telebista eta Bideoak  
Antena kolektiboak eta  
banakakoak  
Konponketa tailerra

## Errekalde ostatua

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak

Tfnoa: 630259 - BERA

ZURE BIDAIAK, ZEURE NEURRIAN ANTOLATUTAKOAK



## ERRO BIDAIAK

BIDAI  
AGENTZIA  
G.A.T. 2.015

- ✕ HERRIAK
- ✕ MENDIAK
- ✕ TURISMOA
- ✕ TREKING eta  
BIDAI ALTERNATIBOAK

ADUANÑA KALEA, 5

☎ 943 - 615177

☎ 943 - 619489

FAX 943 - 619517

20.300 IRUN



ASISTENTZI TEKNIKORAKO ZERBITZUA

\* TB, Bideo, HI-FI eta elektrogailuen konponketa

\* Bakarkako, kolektibo edota satellite bidezko antenak ere paratzen ditugu

Itzea 4, behea - BERA Tfnoa: 63 10 91



SUNBILLA

Ulibeltzak elkartearen bilerara 35 bat bazkide bildu ziren

Ehiztariak ere hautatu zituzten beraien karguak

IXABEL eta JOSUNE

Joan den larunbatean Ulibeltzak elkartearen asanblada orokorra ospatu zen eta 35 bat bazkide juntatu ziren. Bilera hone-tan proposatu zen telebista bat jartzea eta bazkideak boto eman ondoren gehiengo osoz irabazi zuten. Baita elkarte pintatzea onartu zuten eta hemen bazkideek beraien borondatez eginen dela adierazi zuten. Azkenik, sozio berri bat ere sartu zen.

Egun eta leku berean Rufino Arrietari bere lagunak "despedida de soltero" egin zioten, laister ezkontzen delako.



Rufino Arrietari «despedida» egin zioten bere lagunak, laister ezkontzekoa baita. Zorionsua izan dedila.

**Herri Kirolak**

Aurtengo Herri Kirolak haurrekin hasi dira. Sunbillako haurrek bi igandez jokatu dute eta bietan bigarren postua lortu dute.

**Ehiztarien bilera**

Martxoaren 27an Herriko Etxeko batzargelan ehiztariak bilera egin zuten junta berriaren kargu banaketak egiteko.

Alde batetik Lau Herrietako juntan honelaxe banatu ziren karguak:

*Lehendakaria:* Jose Manuel Zugarramurdi. *Lehendakari-ordea:* Jose Maria Korta. *Idazkaria:* Juan Luis Apeztegia. *Diruzaina:* Pako Petirena.

Bertzalde, Katagorri kotoko junta honela banatu zen: *Lehendakaria:* Ma-

riano Gonzalez. *Lehendakari-ordea:* Francisco Graziarena. *Idazkaria:* Juan Pedro Bertiz. *Diruzaina:* Florentino Gelbenzu.

MENDI HOTELA



DONAMARIATIKO BENTA

Jatetxea

Tfnoa: 450925 / 450708 - DONAMARIA

BEINTZAKO OSTATUA

Tfnoa: 45 00 14



BEINTZA LABAIEN

OSKORRI LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245  
ORONOTZ-MUGAIRI



LIZUN

GAZTANDEGIA  
Etxeko Ardi Gazta

Petxenekoborda  
Tfnoa: 45 08 62  
SUNBILLA



SANTAMARIA  
Jatetxea

Especialitatea euskal sukaldaritzan  
Eguneko menua eta karta  
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE



# Kisu labea berritu da Nafarroako Gobernuaren laguntzaz

Arrantza garaia hasi bada ere, amorrarri gutti

DANIEL MARTIRENA

Etxeak, jendeak, zubiak, ohiturak... gauzatzen dute herri baten historia, eta honexegatik dira galdu ezinak.

Legasan izan badira gorde eta zaindu behar diren hauetako gauzak, eta honetakoan "Kisu labiari" tokatu zaio txanda, Nafarroako Gobernuaren diru-laguntzaz eraberritu bait dute. Izugarri polita gelditu da argazkian ikus daitekeen bezala.

Aipatu beharra da hasiera batean etxeak xuritzeko kisua egiteko erabiltzen bazen ere, azken boladan hagitz zikina zegoela,



Kisu labeari itxura polita hartu du eraberritu ondotik



Argazkiak: DANIEL

bertara zabor eta zakarkeri ugari botatzen bait genuen herritarrok.

## Arrantza kontuak

Krisi ekonomikoaz aparte amorrarri krisialdia badagoela ziur daude aur-

ten arrantzaleak. Hala ere, ez du iduri gehiegi axola zaienik, herritar zein kanpotar ugari hurbiltzen bait dira arrantzara, bueltatzerakoan zaria hutsik aurkitzen badute ere. Zer

ote da krisialdian bizitzea!

☐ **Legasako** zubi berria egiten lehenbaitlehen hastera eskatu diote zonaldeko alkateek Nafarroako Gobernuko Komunikabide eta Bidezango sailari.

## LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Zurezko zoletan nahi duzuna



Tfnoa: 630735 - BERA Tfnoa: (943) 622305 - IRUN

## BELARRA Kafetegia

Plater konbinatuak

Amezti 3, Tf.: 45 03 06 - DONEZTEBE



Ezkontzetako erreportaiak argazkiak eta bideoa

Tfnoa.: 58 01 55 - Santiago 40 ELIZONDO

Eta orain, zure koloretako argazkiak **ORDU BATEZ ERREBELATUAK** ditugu

## NATUR ETA ESKU TERAPIA

### QUIROPRÁKTIKA

Sendatzeko modu naturala da. Interesatzen bazaizu deitu telefono hontera:

☎ 45. 16. 42



Inzakardi 3 - 1. A eta B - **DONEZTEBE**



### GARAICO ESKEINTZA

- ☘ Hazitarako patata
  - ☘ Fruitondoak
  - ☘ Udaberriko landareak
- ETORRI ETA IKUSI

NARBARTE - ☎ 592200

**DONEZTEBE**

**148 milioi pasatuak aurtengo udal aurrekontua**

Ezpelura errekan presa berria egitea ere erabaki zuen udal batzarreak

**TXEMA ALDABE**

148.323.537 pezetatako aurrekontua izanen da aurtengoan, horrela erabaki bait zen azken udal batzarrean. Gastuei dagokionez, inbertsioak (50 milioi) eta langilegoaren soldata (43 milioi) izanen dira haundienak. Diru sarrera nagusiak, berriz, transferentziak, zergak eta tasen bitartez lortuko dira.

**Menditarako aurrekontua**

Menditarako aurrekontua ere onartua izan zen pleno berean. Guztira 3.021.000 pezetatakoa izanen da.

Bertzalde, Laubide inguruan egindako errepo-



Judo eskolakoak Oskar Mindegia "gerriko beltza" dute irakasle

blazioak 805.351 pezetatako kostoa izan dute eta hau ordaintzeko dirulaguntza eskatu zaio Mendi zerbitzuari.

**Presa berria Ezpelura errekan**

Gaur egun sortzen di-

ren usai txarrak ekiditeko edo ebitatzeko presa berri bat egitea erabaki du udalak Ezpelura errekan.

Abenduaren 8ko uholdeak eraman zuen Mateo etxearen parean zegoen presa.

**ttipi-flash**

- 1.288** gizaseme eta emakumezko zeuden 1992ko abenduaren 31an Doneztebeko padronean, 643 emakume eta 645 gizonezko. Aintzineko urtean baino 63 pertsona gehiago.
- 5.718.195** pezeta jasoko ditu aurtengo udalak Zirkulazio zerga dela eta.
- Mediku** berria euskalduna izatea eskatu du udalak Bertizaranakoarekin bat eginez.
- Defizita** sortu du aurtengo Inauteriak, zehazki 137.890 pezetatakoa.
- DY** Ari 25.000 pezetako laguntza eman dio udalak.



**AMEZTIA Jatetxea**

Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan  
Tf: 450028 - **DONEZTEBE**

**IBARROLA**

**HAURRENDAKO ARROPA - MERTZERIA**

Parrokia 6, Tfnoa: 45 04 63 - **DONEZTEBE**

**TELLETXEA MOBLEAK**



**Moble erakusketa haundia**

- Edozein era eta neurriko altzariak egiten dira. Fabrikanteak gara.
- Tresillo eta tapizerietan aukera zabala
- Zure erosketengatik opari ona eramanen duzu

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - **DONEZTEBE**



**ILEAPAINDEGIA**  
San Miguel, 450922 - **DONEZTEBE**

- ❖ Ilepaindegirako ordua eskatu
- ❖ Solarium-a
- ❖ kalitateko parfumeak
- ❖ Bitxitegi fina

**Mari Cruz**

**LENTZERIA**

Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - **DONEZTEBE**

## Ikastaroetan egindakoa erakusteko garaia

JUAINAS

Herriekin, pertsonekin bezala gertatzen da: izen berdin baten estalkian, errealitate mugikorra.

Nork esanen zigun, eta guk sinetsi, txakur mikrotxip-dunak ezagutuko genuela Zubietan? Kaso eman! hau hasiera besterik ez bait da... urte batzu barru, saiakera ongi baldin badoa nortasun agiriaren ordeza paratuko digute eta.

Eta bitartean, hain kontent! Hortxe bertan duzue Marijuli bere mastin mikrotxipduna eta zurgintza ikastarokoak landu dituzten zenbait traste, palmeraren aurrean. Maiatza edo

ekaina partean, bai hauek bai makrameko lanak ikusi ahal izanen dugu erakusketan. Momentuz, eta Aste Santua probexten, estalpean, Ines eta Titok egiten dituzten **serigrafiak** izanen ditugu aukeran.

**ttipi-ttapako** zubietar ekipoak argazkilari-fotografo berri batekin kontaktzen du, Domintxingo Joseba, hain zuzen eta okertzen ez bada.

—Banda municipalik ez dugunez Ferminen erredule luze eta eder bat entzun hemen—

**93ko zubitarra** jaio zaigu! Eneko! Egia esan behar badugu, Imatxok jaio



Zurgintza ikastaroko trasteak, Marijuli eta bere mastin mikrotxipduna

JOSEBA

du, baino den eskasia dela eta, herriarena izan behar. Bromak aparte, zorionak! Haur gutxi jaiotzen dira herrian, inguruko herri gehienetan seguraski... "askoren gaitza, ergelen esperantza". Hasteko, gazte gutxi ezkontzen dira herrira. Moda? zerbait

egonen da, akaso, eta etxe hutsez beterik dagoen herri batean etxea lortzea batere erraza ez dela, baita ere. Ayuntamiento berak alokatzen dituena hagitz garesti ateratzen ditu, gero eta garestiago, politika kontraesankor batetan eroriz.

## DONAMARIA

## Pala txapelketa

PELLO ETXEGIA

Partidu saila jokatu dira Donamariako plazan eta bigarren mailan lau bikote sailkatu dira: Fidel-Santos, Fuljenzio-Bautista, Lorentzo-Luis Mari eta Jaber-Anjel Mari. Lehenbi-

ziko mailan berriz, partidu batzu falta dira eta oraindik ikusi behar. Maiatzaren leian izanen da finala.

□ **Nekazariak** ere, alde batetik ez bada bertetik saiatu behar. Azken honetan Igurinen Albozenekoak eta Artzen Barrendegikoak zerritegi ederrak egiten ari dira. Ea behiekin baino suerte hobea izaten duten.



Pala txapelketak baditu jarraitzaile franko, igandero igandero plazara biltzen direnak



Udaberriko arropa koloretsuak

San Migel auzoa 27,  
45 08 83 - DONEZTEBE

ZONALDE HONETAKO 5 ETXETIK 4tan  
ttipi-ttapa HARTZEN DUTE  
ZURE KLIENTEEK ERE ttipi-ttapa HARTZEN DUTE



GOIZUETA

**“Arte eta Kultura” kanpainaren ekintzen egitaraua prest**

Gutzira, milioi erdiko aurrekontua izango du

ESTEBAN AROZENA

Udalak eta Umore Ona elkartearen artean egindako bileren ondoren, Nafarroako gobernuaren dirulaguntzaz urtero burutzen den “Arte eta kultura” kanpainaren programazioa prest dago.

Datak ongi zehaztu gabe badaude ere aurreratu dezakegu musika mexikarra egiten duen “Kojon Prieto Azabache y los Huajolotes” taldea maiatzaren 15ean gure artean izango dugula. Uztaileko bi asteburutan umeei zuzendutako ekitaldiak burutuko dira. Hilaren 3an, Kika, Koko eta Moko pailasoak, eta 17an ipuin kontalari bat. Udazkenera igaroz, urriaren 24ean J.J.



“Kojon Prieto Azabache y los Huajolotes” maiatzaren 15ean

Aizkorrek zuzentzen duen koruak emanaldi bat eskeinituko du. Eta azkenik, azaroan antolatuko den bertso paper lehiaketari bukaera emateko prestatuko den jaialdian lau nafar bertsolari

gazteen saioa izango da.

Kanpaina honen antolakuntza eta finantziazioa, udala eta Umore Ona elkartearen artean egingo da, ekintza guztien aurrekontua 500.000 pezetatakoa dela-

rik. Dirutza honen erdia inguru Nafarroako gobernuak subentzionatuko du.

**Mus eta trukeko txapelketak**

Martxoaren 27an eta apirilaren 3an hasi ziren urtero Umore Onak antolatzen dituen mus eta truk txapelketak. Musean hogeiki bikoitek izena eman dute eta trukean hamazazpik.

Errepetidore berriari buruz azken alean emandako informazioan, beste kateekin batera Canal Plus ere ikus ahal zela esaten genuen. Berri hau zuzendu beharrean gaude, kate pribatu honen seinalerik ez baita sartzen oraingoz aipaturiko errepetidorera.

ARESO

**Errepidea zabaltzeko espropiazioak egiten hasiak**

JUANA MARI SAIZAR

Azken alean aipatu genuen errepedeen espropiazioa egiten hasia zela eta obra hauen kostoa ia ia 50 milioietakoa izango da. Obra hauek autobia bukatu ondorean hasiko dira. Zabaldutako distantzia 6 metrotakoa izan da, orain 4 metro bait



Autobiaren obrak bukatzerakoan egiten litzateke zabaltzea

ditu. Mejora gehienak kurbatan izango dira eta ezker aldean petril haundi bat egingo dute, orain ez dagoe-

na. Obra hauen proiektua Udaletxean dago 20 egunez, nahi duen guztiak ikus dezan eta alegazioak etabar egite-

ko. Epe hau pasa ondoren Nafarroako gobernuak hasiko da obra egin behar duten enpresak kontratatzen.

**Autobiaren obregatik kexuka**

Autobiaren obrak direla eta Aresoko kaltetuak lehengo aldiaren protesta bat egin zuten, beren traktoreekin pausoa moztuz autobioaren makinaria eta kotxei. Ordu erdi bat iraun zuen errepede mozketa honek. Esan baita, aste honetan prentsaurreko bat eman dutela Iruñean, beren kejak agertuz.

## Apirila kultur ekitaldiz betea datorkigu

Crossa, Mendiko Astea, irratia...

JOSEBA AZPIROZ

Aurtengo Crossaren prestaketarekin hasi da lanean, martxoaren 27an ospatu zen batzarrean ahobatez hautatutako Aurrerako Junta berria. Crossa, hilaren 18an ospatuko da eta batzarrean jende askok izena eman bazuen ere esku bat botatzeko, izanen da nahi duenarentzat zertan lagundu. Junta, horrela osatua gelditu da: Lehendakaria: Fermin Barriola. Lehendakariordea: Juan Ramon Lizarraga. Idazkaria: Jose Ignacio Lizarraga eta diruzaina: Jesus Mari Ariztimuño.

Apirilaren azkenaldera batzarrea eginen da lanak nola antolatu behar diren erabakitzeko, besteakbeste.

□ **Mendi Astea** antolatu du Leitzako kultur taldeak, apirilaren 20tik 25era. Bideoak, hitzaldiak, diapositibak, mendi irteerak... izango dira.

*Pareko argazkian ikusiko duzue, Leitzako irratia ezin hobez hasi du emisio kanpaina. Beheko argazkian Aurrerako Junta berria.*

Arg. ANTON



### W ttipi-flash

□ **Zuen haurrak** 1990eko urtarrilaz geroztik jaioa bada eta hiru urte egitekoak baldin baditu, haurtzaindegira eraman ahal izango duzu, ekainaren 15a baino lehen Udaltxean haurraren izena, jaioteguna, gurasoen izenak eta banku edo aurrezki kutxaren kontuaren zenbakia emanez, hileko 2.160 pezetako kuota kobratzeko.

□ **Esparru** eta adin ezberdinetako zenbait leitzar bildu ziren herriko plazan Leitzako **irratia euskaldunari**, bere emisioaren hasierako kanpaina zela eta, argazki bat atera eta beren irudia kartelen bidez herrian zabalduz, lehen bultzada emateko asmoz.

□ **Neguko** futbol txapelketa bukatu da: 1. Kirtenak. 2. Metaziri. 3. Zingurutxo II eta 4. Akerrak.

□ **Marilesakenea**, herriko etxe zaharrenetarikoa bat (1627) moldatzeko lanak hasi ditu Jabier Eskubik.

**SAGASTI**

**Jatetxea**

Bokadilo goxoak eta paregabeko bazkariak

Tfnoa: 610637 - LEITZA

**GAZTETXO**

*Goxotegi eta Jolas-lekua*

Elbarren 15 - LEITZA

**ZABALETA**

**JANARIDENDA**

Urdaiazpiko goxoa eskeintzen dizue

Uharte Gotzaia 5

Tfnoa: 51 04 28

**LEITZA**

*Lorea eta Idia*

**ileapaindegia**

Tfnoa: 610907 - LEITZA

**ZABALETA**

**Zurgindegia**

Elbarren 90 - Tfnoa 510334 - LEITZA



**BAZTAN**

**Urruneko baserrietan telefonoa jartzea merkeago izanen da**

Orainarte milioi erdia ere kosta zitekeena, hemendik aintzineraz 25.000 pzta. inguru

JOSEBA IGARABIDE

Nafarroako Gobernuak eta Telefonikak sinatu berri duten akordioaren arabera, hurrengo hiru urteotan telefonorik gabe dauden urruneko baserri bakanak ere izanen dute telefonoa merke jartzeko aukerarik. Horretarako, baserriraino telefono kableak hedatu beharrean 'telefono mugikor automatikoak' jarriko dira, antenaz lotzen direnak, alegia.



Telefonica eta Baztango Udalaren arteko akordioek telefonoz dextente hornitua dute Baztanaldea azken urteotan.

**Marin zubiko etxean lehena** Sistema berrihonen inaugurazioa joan den larunbatean egin zen, eta horretarako, Almandozko Marin zubiko etxea aukeratu dute 'istripuetan eskeintzen duten laguntzagarik'.

**Dantxarineatik ez da Autopistarik pasatuko**

Lopez Borderias Herri Lan kontseilariak Beran egindako bilera batean adierazi zuenez "Iruñetik mugarainoko autopista asmo utopikoa da". Kontseilariak gaineratu zuenez,

**Baztandarren Biltzarrerako kartel lehiaketaren epea zabalik**

"Baztandarren Biltzerra-93" iragarriko duen kartelaren lehiaketarako lanak hilaren 20a eguerdia bitarte aurkez daitezke.

Kartelaren neurriak gehienez 50x70 zm.takoak izanen dira eta guztietan "Euskarak batzen gaitu" Baztandarren Biltzerra 93, eta Elizondon uztailaren 18an testoa sartu behar da. Egileak kartel bako-

itzeko gibekekoaldean lema bana jarri behar du. Kartelarekin batera gutun azala itxia eman behar izanen da, kanpokoaldean egilearen izen deiturak, helbidea eta telefonoa paratuz.

Edozein teknika eta kolore erabil daiteke kartelak egiterakoan, beti ere offset sistemaz erreproduzitzeko modukoa izatea kontutan hartuz

"Belateko tunelean peajea jartzea ez da inoiz planteatu". Modu honetan, aintzi-

neko alean argitaratu genituen Javier Pomesen erranak gezurtatu zituen.

**ttipi-flash**

- DYA** elkarteak 60.000 pezetatako dirulaguntza hartu du Balleko Etxetik.
- Amaiurkoek** kanposanturako karretera moldatu behar dute auzolanean, materiala udalak paratuta.
- INEM** erakundearekin sinaturiko konbenioan bitartez hainbat lan egingen dira. Bertzeak bertze, Arraiozko Dolareako sorroan pareta egitea, Oronozko karreteraren eskuinaldean espaloia eta bi aldetan pareta egitea...
- Udal artxiboa** moldatzeko eta antolatzeko dirulaguntza eskatu du Balleko Etxeak.
- Aste Santuan** antolatzen diren elizkizunek sortzen dituzten gastuak estaltzeko, 'Santa Hermandad de la Pasión del Señor'ek 45.000 pezetatako laguntza hartu du udaletik.
- Baztan ikastolak** aktibitate eta ekitaldiz beteriko kultur astea ospatu zuen apirilaren hasieran. Pintxo eta txokolate jatea, Herri Kirol erakustaldia, hitzaldia...

**IPINGI**

ZATOZ ETA IKUSI  
Santiago 88, Tfnoa: 580939  
ELIZONDO

**Udaberriko arropak eta telak**

**KASINO OSTATUA**

Jaime Urrutia 10 - ELIZONDO

## Pilota txapelketa bukatu zen

Bertzalde, Almandozen gazte bazkaria Ortziral Santu egunean

PABLO MENDIBURU

Aintzineko alean aipatu genuen bezala, Basaburuako pilota txapelketa bukatu zen, emaitzak hauek izan zirelarik:

**Binakakoetan, lehen mailan** txapeldun Pierola eta Mitxeo eta bigarren Ernautete anaiak.

**Bigarren mailan**, berriz, txapeldun Fernando eta Iñaki eta bigarren Aitor eta Asier.

**Emakumeetan**, Lorentxi eta Maritxu izan ziren txapeldun eta Dorita eta M<sup>a</sup> Luisa bigarren.

Banakako finala atzera-tu zen.

### Mux txapelketa

Mus txapelketan, berriz,

*Berroetan  
elkarte berri bat  
egiten hasi dira  
eskolaren  
atzekaldean*  
ARTXIBOA



txapeldunak Jose Antonio eta Sagrario, eta bigarrenak, Martin eta Izaskun.

### Ortziral Santuan gazteen bazkaria

Ortziral Santu egunean, Almandozko gazteek baz-

kari berezi bat antolatu dute. Mendian egiten duten bazkari honetan, lan guztia mutilen gain dago (prestatu, fregatu, etabar...). Matxis-moa urtean behin bederen, Almandozen ez dago.

Basaburuako kirol

elkartek antolatuturik kontzertu bat egiten da maiz-tzean. Xehetasunak hurrengo aleetan argitaratuko ditugu.

Zigako jendeak parte hartuko du Elizondoko Ortziral Santuko prozesioan.

M<sup>a</sup> Dolores Mirana **TOPOGRAFOA**  
**NEURKETAK • PLANOAK**  
Lur neurketak  
Luberriak  
Plantazioak, etab.  
Santiago 68, 3. Esk. ☎ 580143 • ELIZONDO

**BAZTAN FUNERARIA**  
HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA  
SALMENTA • TRASLADOAK  
Jaime Urrutia 53 ELIZONDO  
Tfnoak: 580924-580814-580373

**Eskeizari jatetxea**  
Jaime Urrutia, Tfnoa.: 580013  
ELIZONDO

**MENDI OSTATUA**  
Santiago 25 - ☎ 580313  
ELIZONDO

**GESPAM, S.L.**  
Mendinueta 12 • ELIZONDO  
Tfnoa eta Faxe: 45 21 92  
**M<sup>a</sup> JOSE DEL MORAL ARIZTEGI**

**GESTORIA ADMINISTRATIBOA**  
**ASEGUROAK:**  
GAN – AEGON – AGF  
**KONTSEJUAK:**  
• Fiskalak  
• Laboralak  
• Kontuetan

**Zerbitzu integrala enpresarientzat**  
**Deitu konpromisorik gabe!!**

**FZ**  
FOTO ZALDUA  
**ZURE EZKONTZARAKO**  
**FOTO eta BIDEO**  
**Erreportai on bat**  
ELIZONDO ☎ 580491  
DONEZTEBE ☎ 450364  
MARKOEN TAILERRA eta zure  
karretek **ORDU BATEZ REBELATZEN**  
DITUGU "FUJI" kalitatearekin.

URDAZUBI

IX. mus txapelketaren finala jokatu zen Indiano-baitan

Pala txapelketa ere laister hasiko da

ALIZIA OLAIZOLA

Martxoaren 27an, larunbat arratsean egin ziren Indiano-Baitako mus txapelketaren bi azken partidak. Txapeldunak Patxi Bengoetxea eta Policarpo Jaurena. Bigarren postuan, Pedro Jose Tomasena eta Cecilio Sansiñena geratu ziren. Ondotik afaria eta dantzaldia Modestorekin goizeko 6,30ak arte piztura haundia izanez.

XI. pala txapelketa

Laister hasiko da eta bi



Mus txapelketako sarituak: ezkerrean, txapeldun eta azpitxapelidunak; eskuinean hirugarren-laugarrenak



kategorietan banatuak izanen dira jokalaria. Finala, beti bezala, bestetan izanen da, aurten maiatzaren 22an,

larunbat goizean.

□ Beotxea jatetxean martxoaren 27an kinto besta izan zuten 1947 eta

1948koek, zugarramurdiarrak eta urdazubiarrak izanez. 15 lagun bildu ziren bazkaltzeko.

ZUGARRAMURDI

Kotxe arrudak zilatuek agertu ziren arrats batean


KORO ETA MARGARI

Herriitikietan ere ez gara lasai bizitzen ahal. Martxoaren 21etik 22rako gauean herrian sartzean dauden etxebizitzetako aparkalekuan, lau automobil arruda zilatuekin agertu ziren: batek 4 arruda, bertze batek 2 eta azkeneko automobilak 3.

Ageri denez ziloak txarkeri guziarekin eginak dira

eta ez antolatzeko modukoak. Jendearen artean iritzi aunitz ibilki dira baina automobilen nagusiek beren susmoak badituzte.

□ Norberto Beolak 86 urte hilabete huntan beteko ditu, zauli, osasun eta umore ederrean gainera. Orain dela bi urte mendi bizikleta bat erosi zuen eta egun guziz 4 km. egiten ditu bere bordinoko itzulian.



Norberto Beola, 86 urterekin, bizikletan ibiltzen da egunero, zaulitasuna gordetzeko.

ARROPA DENDA



CERVANTES  
HELVETIA SEGUROS



Era guzietako aseguroak  
Eska itzazu aurrekontuak  
Juana M. Urrutia

ERLOJU eta BITXI DENDA

ARRIETA

KIROL TROFEOAK

Tfnoa.: 580 445 - ELIZONDO



## Azken agurra Paul Dutournier jaunari

Istripu lazgarri baten ondorioz zendu da 30 urtez Sarako auzapeza izana

MIXEL eta JACQUELINE

1947 geroztik 30 urtez Sarako auzapeza izana, Lapurdiko auzapezen biltzarren buru izana eta maiz bere iritzia plazaratu duena edozoin arlotan zendu da 83 urtetan ixtripu latzgarri baten ondorioz.

Azken agurraren egiteko Euskal Herria osotik izigarrizko jendeketa bildu da eta eliza mukuru betea zen. Doluminak herritar guzien izenean familiari eskeintzen diozkagu.



Paul Dutournier Sarako auzapeza izan zen 30 urtez

### Euskal Herriko pilota xapelketa

Martxoaren 27an Zurai-deko erdi finalean bi saratar zeuden.

Gazteetan Christophe

Mariluzek galdu du Jorhaitz ezpeletarraren aurka 37-40.

Helduetan 2. mailan Pierre Arotzarenak irabazi du Beñat Hourcade Aihertarraren aurka, 40-28.

Orain finalerat heltzen da

eta Heguiabehere Miarriz-tarraren aurka ariko da. Par-

tida hori Senpereko Gantxi-ki trinketea jokatzekoa zen.

#### HAUTESKUNDE OROKORRAK (1)

	6. eskualdean (%)	SARAN (%)
<b>ESKUIN ALDERDIAK</b>	<b>64,33</b>	<b>70,89</b>
Alliot Marie (UDF)	43,27	46,24
Badiola (CDS)	11,92	19,21
Ginoux (FN)	7,25	4,30
Gaborieau (DE)	1,89	1,14
<b>EZKER ALDERDIAK</b>	<b>20,04</b>	<b>9,50</b>
Lassalette (PSF)	15,51	7,70
Ponce (PCF)	4,53	1,80
<b>ABERTZALEAK</b>	<b>6,69</b>	<b>14,51</b>
Irazusta (Ab. Batasuna)	5,03	11,01
Pagola (EA)	1,66	3,50
<b>EKOLOGISTAK</b>	<b>8,94</b>	<b>5,10</b>
Veunac (Berdea)	6,32	3,80
Flamant (bertze berdea)	2,62	1,30

SARAKO ZENTSOA.. 1.636

ABSTENZIOA.. 600 (% 37)

#### HAUTESKUNDE OROKORRAK (2)

	6. eskualdean (%)	SARAN (%)
Alliot Marie (Eskuina)	64,54	78
Lassalette (PSF)	35,46	22

## MANUEL MARTIN

Barnekalderako dekorazio dendak  
Zerbitzu hauek eskeintzen dizkizue


- Era guztietako gortinak, kamilla bolanteak, edredoiak eta maindireak.
- Alfonbrak, bertakoak eta inportaziokoak Nepalekoak, Turkiakoak, Pertiakoak, Txinakoak...

Bertan egiten ditugu produktu guztiak

**25 urtetako esperientzia**

Bisita gaitzazu

Serapio Mugika 8  
Tfnoa: 943-616603  
**IRUN**



Pasajes 3  
Tfnoa: 943-511598  
**ERRETERIA**

**ARLA**

**ARDOTEGIA**

Ardo botilatua  
eta botilatu gabea

Santiago 56, Tfnoa: 45 32 66  
**ELIZONDO**



**JATETXEA**

Tfnoa.: 580101  
Santiago 1  
**ELIZONDO**

**Galarza**

## Beatriz Lurrindenda

Garantia osoko produktuak  
aurkituko dituzu

Perfumeak, Kosmetikoak, Bitxiak, Poltsoak, Oparitzeko artikulua

\*\*\*\*\*

Santiago 53, Tfnoa: 58 02 83 - ELIZONDO



## EZKONTZAK

**Andoni Baraibar Garmendia** eta **Sol Muñoz Iturri**, Areso eta Donostiakoa, martxoaren 6an.

**Jean François Dargelez** eta **Patricia Zamora**, Azkaine eta Sarakoa, martxoaren 6an.

**Jose Joaquin Hualde Sarratea** eta **M<sup>a</sup> Socorro Iribarren Abad**, Legasa eta Oronoz-Mugairikoa, martxoaren 20an.

**Martin Mariezkurrena Juanena** eta **M<sup>a</sup> Josefa Ursuegi Zubiri**, Urrotz eta Elizondokoa, martxoaren 20an.

**Rafael Iriarte Agirre** eta **Amaia Elizalde Eskudero**, Narbarte eta Doneztebekoa, martxoaren 27an.

**Juan Miguel Gil Jaurena** eta **M<sup>a</sup> Teresa Ibañez Maia**, Elizondo eta Oronozkoa, martxoaren 27an.

**Jose Luis Otxoteko Altugarai** eta **M<sup>a</sup> Concepcion Pikabea Altzuguren**, Lesakakoak, martxoaren 27an.

**Jose Manuel Merino Ramos** eta **Begoña Arretxea Ramirez**, Donostia eta Lesakakoa, martxoaren 20an.

## JAIOTZAK

**Xabier Odriozola Agirre**, Leitzan, martxoaren 21ean.

**Imanol Olabe Lertxundi**, Elizondon, martxoaren 22an.

**M<sup>a</sup> Angeles Musgo Dominguez**, Beran, martxoaren 28an.

**Eneko Santesteban**, Zubietan, martxoaren 29an.

**Miren Ainhoa Jorajuria Mendiburu**, Donezteben, martxoaren 13an.

**Oihan Olaizola Otxoteko**, Lesakan, martxoaren 27an.

## HERIOTZAK

**Aingeru Alustiza Pellejero**, Areson, martxoaren 25ean, 2 hilabete.

**Jose Galarregi**, Sunbillan, martxoaren 16an, 82 urte.

**Luciana Arretxea**, Sunbillan, martxoaren 17an, 94 urte.

**M<sup>a</sup> Maximina Zubitur Arribillaga**, Leitzan, martxoaren 31an, 92 urte.

**Paul Dutournier**, Saran, martxoaren 27an, 83 urte.

**Luixa Hirigoyen Miura**, Saran, martxoaren 27an, 79 urte.

**Florentina Ezponda Martikorena**, Elizondon, martxoaren 25ean, 90 urte.

**M<sup>a</sup> Ascension Garcia Sainz**, Berakoa, martxoaren 22an, 48 urte.

**Daniel Apeztegia Etxeberria**, Lesakakoa, martxoaren 22an, 76 urte.

**Josefa Antonia Altugarai Irigoirri**, Lesakakoa, martxoaren 28an, 89 urte.

## J. M. ANDUEZA IRIARTE

### Instalazio elektrikoak

#### ☛ Sua itzaltzeko tresna guztiak

- Mangerak
- Extintoreak
- Sua mozteko atek: Rf-30, Rf-60, Rf-90. etab...

#### ☛ **Alarmak:** Suarenak, lapurretarenak, gasarenak...

Askain Karrika 12 • ☎ 630854 • **BERA**

## TXOKOA OSTATUA

- × Eguneko menua
- × Asteburutan, kaxuelak eta karta
- × Gosari, bazkari eta afariak aintzinetik eskatuta
- × Pintxoan espezialduak      × Gazte giroa

Tfnoa: 630286, Altzate • **BERA**

## MENDIALDE Jatetxea



**Etxeko gasnak saltzen ditugu**

Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan  
**AMAIUR** Tfnoa: 45 30 00



## 200 korrikalari Lesakako I. Herri Laisterketan

*BAT taldeko Joseba Sarriegi izan zen txapelduna maila nagusian*

200 korrikalarik (71 emakumezko eta 129 gizonetzko) parte hartu zuten martxoaren 21ean burutu-tako Lesakako I. Herri laisterketan. Maila nagusian Joseba Sarriegi izan zen garailea eta Rafa Maritxalar lesakarrak merito handiko laugarren postua eskuratu zuen.

Antolatzaileak gustora gelditu dira herriaren eta merkatal etxeen laguntzarekin eta edizio berriak egiteko asmoa agertu dute, beti ere kirol zaletasuna eta parte hartzea bultzatzeko asmoz.



Lesakako I. Herri laisterketan maila handiko korrikalariak aritu ziren

TELLI TXEA

( ) Parentesi artean maila bakoitzeko parte hartzaileak

### GIZONEZKOAK

#### BENJAMIN (18)

- 1.- Jon Telletxea (Irain)
- 2.- Roberto Villadangos (Irain)
- 3.- Markel Etxebeste (Bera)

#### ALEBIN (17)

- 1.- Jose M<sup>o</sup> Elgorriaga (Irain)
- 2.- Mikel Zelaieta (Gure Txokoa)
- 3.- Javier Olondriz (Elizondo)

#### INFANTIL (15)

- 1.- Axier Iturralde (Gure Txokoa)
- 2.- Josu Juanena (Doneztebe)
- 3.- Alberto Gonzalez (Irain)

#### KADETE (5)

- 1.- Jorge Orbegoza (G. Txokoa)
- 2.- Adrian Gajate (Gure Txokoa)
- 3.- Antonio Hidalgo (Lesaka)

#### Senior herrikoa (29)

- 1.- Txomin Azpilkueta
- 2.- Juan M<sup>o</sup> Gonzalez
- 3.- Oskar Ibarguren

#### BETERANOAK (22)

- 1.- Manuel Moyano (40-45 urte)
- 1.- Ramon Fernandez (46-50)
- 1.- Javier Llorente (51-55)
- 1.- Gregorio Zabalegi (56-60)
- 1.- Esteban Izagirre (+ 60)

#### Senior federatua (18)

- 1.- Joseba Sarriegi (BAT)
- 2.- Jose Ramon Insausti (Urola)
- 3.- Carlos Bengoetxea (BAT)



### EMAKUMEZKOAK

#### BENJAMIN (30)

- 1.- Ainhoa Ordoki (Tanturumairu)
- 2.- Amalur Olasagasti (Donostia)
- 3.- Aintzane Goienetxe (Bera)

#### ALEBIN (16)

- 1.- Miren Moyano (Tolosa)
- 2.- Erika Lagoma (Tanturumairu)
- 3.- M<sup>o</sup> Carmen Muñoa (Irain)

#### INFANTIL (10)

- 1.- Miriam Blas (S<sup>o</sup> Czon - Bera)
- 2.- Ana Paccini (Irain)
- 3.- Maider Goizueta (Irain)

#### JUNIOR (5)

- 1.- Sonia Alvarez (Donostia)
- 2.- Leire Portu (Lesaka)
- 3.- Lupe Garcia (Lesaka)

#### SENIOR (6)

- 1.- Izaskun Errazkin (Donostia)
- 2.- Maika Ariztegi (Ituren)
- 3.- Itziar Gomez


#### BETERANAK (3)

- 1.- Amaia Lorea
- 2.- Lourdes Mariezkurrena
- 3.- M<sup>o</sup> Sol Gil

## Lapurtarren deportazioak gogoratuz

*Duela 200 urte, 1793an, Frantzes iraultzaileek 12 herritako 4.000 lapurtar Landesetara deportatu zituzten eta horietatik 1.600 hil. Bazko astelehenean omenaldia eskeiniko zaie.*

Bazko astelehenez burutzekoa da Saran 1793an Lapurditik deportatutako 4.000 lagunak gogoratzeko omenaldia, Sarako Gaztetxeak eta Xipri Arbelbidek, inguruko bertze kultur elkarte batzuren laguntzarekin antolatuta. Paperek diotenez, 1.600 baino gehiagok bizia galdu zuten Landetarako bidean edota zazpi hilabetez luzatu zen deportazioan. Halere, gaur egun hainbat jendek ez du ezagutzen garai hartako gertakari larri hauek.



Sarako Gaztetxea eta Xipri Arbelbide idazlea dira ekitaldi honen antolatzaile nagusiak



**1** 693an, Louis XIV erregeak eskudo bat eman zion Sarari, hemen gaindi tzarkerian zabil-tzan Mikelet espainol gaixtagin batzu nehork ez zitzakeelarik garraiatu makila, sega, sarde eta beren buru zen Kristobal Ithurbide kapusailak zeukan arma bakarrarekin Saratarrek errautsi zituzten Berako bidean. Gaixtagin horien armak Herriko Etxean egon ziren eta

erregeak emandako eskudoa Herriko Etxeko murruan zizelkatua 1793 arte. Urte horretan hautsia izan zen.

Frantziako Iraultzarekin frantsesek eskubide berri zenbait erdietsi bazituzten, euskaldunok galdu genituen, bereziki herriko biltzarrean parte hartzeko eta Lapurdikoaren ordezkariak izendatzeko eskubideak. Bertze ondorioz ere izan zen. Elizarekin makurtu ziren iraultzaileak. Apez gehienek lekuak hustu behar izan zituzten eta erlisionea gordeka baizik ez zen

praktikatzen ahal.


Europa guztia gerlan jarrri zen Frantziaren kontra, hasiz Espainiatik. Lehen lerroan ginen: 90.000 soldado baziren hemen eta hemengo gazteek soldado joan behar izan zuten lehen aldikotz: 200 saratarrez goiti bazen gerran gertakariok izan zirelarik.

Soldado horien eta beren zaldiak asetzeko gure herriak xurgatu zituzten: bihi, belar eta sorhoak errekizionatu, karraio guziak gure laborarien gain...

Baina jin gaiten Sarara.

Xipri Arbelbide, idazle eta kazetaria:

## «Aipatu gabe ezin da utzi Lapurdi eta Sarako historiako hein hortako gertakari bat»



► *Nondik nora sortu da omenaldi hau egiteko ideia?*

►► Hemen ez du nehork Frantziako Iraultza aipatzen. Iaz Gure Irratiak antolatuta kantaldi bat izan ginuen Urruñan, garai hartako kantuekin. Aurten 200 urte dira Sarako afera hau hasi zela eta aipatu gabe ezin da utzi gure historiako hein hortako gertakari bat, jendeak ez baitu ezagutzen. Honekin batera, eskudoaren mendeurrena ere plazaratuko da, honekin lotua baita.

► *Bazko astelehenean zenbatsu jende biltzekoa da desfilean?*

►► Deitutako elkarte denak heldu badire hirutanogeitamar-lautanogei bat pertsona izanen dira. Interesatuak dire 'Bazko astelehenez orduan gertatutakoa jakinarazi nahi diogu jendeari'

eta uste dut jendea bilduko dela.

► *Egitarauaren barne, zein ekitaldi antolatu dituzue?*

►► Lehenik eskudoaren

ekartzea egingen da. Ondoren, soldadoak zaldiz etorriko dire saratarrak deportatuak direla erraitera eta eskudoa hautsiko dute. Gero defilea Plazaren inguruan eta azkenik Sarako koralak orduko kantak eske iniko dauzku.

► *Liburuxka ere argitaratzeko asmoa duzue?*

►► Bai, kantuen bilduma izanen da eta bertze bi orrialde historia kontatuz.

1793ko apirilaren 20an armada espainola Saran sartu zen... Saratarren baimenik gabe. Armada frantsesaren laguntzarekin kanpo eman zituzten eta gero gerlak segitu zuen guti gora behera Baztango guduka arte (1794, uztailearen 24an). Saratarrak armadan izanki edo armadarentzat lanean ari eta orduan zuten erabakia hartu, herri osoak Lot eta Lot et Garonne departamentuetera eraman behar zuela.

Chauvin Dragon edo Donibaneko iraultzaileek zioten Saran iraultzaren kontrakoak zirela eta aristokratik. Egia erran, herriko apezek ez onaturik iraultzak Elizaz egin legeak, hegoalderat joanak ziren ihesi. Duronea senperetarra izendatu zuten Sarara bainan saratarrek boikotatu zuten. Apez berriaren anaia Irault-



Bazko asteleheneko desfilean duela 200 urteko pertsonaiak ikusiko dira, 'Sans-culote'ak barne

tzaren kargudun izanki eta iduri luke bere karguaz baliatu zela bere anaiari egin afruntuaz mendekatzeko, deportazioa erabaki araziz 1793ko azaroaren 25ean.

Ondoko martxoan baizik ez zen gauzatu delako deportazioa. Itsasuko 47 gaztek desertatu ondoan zituzten ereman Sara, Azkaine, Serres, Biriatu, Larresoro, Kanbo, Ainhoa, Zuraide, Ezpeleta, Luhuso, Makea eta Lekondako adin guztietako 4.000 jende, orduko pape-rrak diotenez. Oinez eraman zituzten Landesetara, Biarnora eta haratago ere. Haur batzue bidean sortu ziren. Lehen batean elizetan egon ziren metaturik, ogi eta urez haziak, beren beharrak teila batzuen gainean egiten zituztela. Emazte batzue soldado zaindarekin etzan ziren beren haurrentzat jatekoa

ukaiteko. Lapurtarrak mandoz eta astoz joan ziren Landesetara janari emaitera beren familiakoeri. 1600 bat hil ziren.

Parisen Robespierri lepoa moztu ziotelarik erabaki zuten beren etxetara itzultzen ahal zirela 1794ko irailaren 30ean. Bainan etxeak hutsak hatxeman zituzten, abere (10.000 ardi aipu dira Sarako herriarentzat orduko paperetan), oihal, muble eta gaineratiko guziak ebatsiak zizkieten. Orduko 782.000 liberetan estimatuak izan ziren saratarren makurrak, bertze herrietakoak bertzalde.

Xipri ARBELBIDEren testu batetik hartua




Tomas Ezkurra:

## «Krisia Bordatxora ere ailegatu da»

*Dena dela, dantzalekua berehala ixtekotan dagoela dioten zurrumurruak gezurtatu ditu*

Gauza guziak beren bizi eboluzioa edo ziklo bitala izaten omen dute. Lehenik sortu eta hazi, gero, denborarekin goia jo ondoren, poliki-poliki beheranzko joera hartzen duten arte. Hogei urte bederen izanen dira Bordatxoren bizi prozesua abiatu zela eta momentu honetan bizi eboluzioaren zein puntutan dagoen jakiteko datu objektiborik ez badugu ere, aunitz dira gaurko momentu hau interpretatzerakoan, krisi egoera batekin lotzen dutenak.

Doneztebeko Bordatxo dantzalekua 'Hiru Lagun' izeneko elkarteak sortu zuen bere garaian eta Tomas Ezkurra dugu gaur egun dantzalekua gestionatzen duen elkartearen kideetariko bat.



«Urtero bezala sasoiak bukatzean balorazioa egingen da eta orduan ikusiko da datorren urtean zer egin»

**ttipi-ttapa.** Egia al da Bordatxo ixten dela?

**T. Ezkurra.** Azkenaldi honetan izugarriko zurrumurruak ibili dira Bordatxo itxi eta supermerkatu bat ireki behar dela erranez... 500 milioitan saldu dela eta nik

ez dakit zenbat gauza gehiago. Guzi hori gezurra da.

**ttipi-ttapa.** Orduan, datorren urtean berriz irekiko da?

**Ezkurra.** Urtero bezala sasoiak akabatzean kontuak egingen dira eta baita behar

diren balorazioak ere. Hasteko ezin da erran datorren urtean Bordatxo itxiko denik, lehendik aurtengo balorazioa egin beharra baita.

**ttipi-ttapa.** Aurtun, urtero bezala, maiatzean itxiko duzue beraz?



**Ezkurra.** Betidanik Iruriko bestak baino lehenxeago ixten dugu eta aurten oker ez banago maiatzaren lehen edo bigarren asteburuan tokatzen da.

**ttipi-ttapa.** *Jendearen aldetik nolako eboluzioa izan da azken urteotan?*

**Ezkurra.** Bueno... badakizu duela bi urte edo, larunbata eta igandea bitan idekia izatetik bakarrik larunbatetan zabaltzera pasaginela. Bistan da, urtetik urtera jende kopurua guttitzen joan da. Ez dut eskura lehen asteburu batean etortzen zen jende kopurua baina seguru nago erdira edo guttiagora etorri dela. Duela urte batzuk Donostia-Irundik autobusa eta guzi antolatzen zen igandetan, pentsa! Nolanahi ere, gaur egun jendea ez da lehen bezala ateratzen.

**ttipi-ttapa.** *Larunbata normal batean zenbat jende pasatzen da Bordatxotik?*

**Ezkurra.** Zortzirehun edo mila.

**ttipi-ttapa.** *Eta zure ustez ze pasatu da egoera honetara ailegatzeko?*

**Ezkurra.** Nire ustez krisi ekonomikoa asteburutako martxan ere nabaritzen ari gara. Hori argi aski dago. Ez da bakarrik Bordatxoren kasua, Lesakan eta Elizondon gauza bera gertatzen da azkenaldiotan. Gainera, zetikuzuzena du Laminaciones, Sarrio eta bertze lantegien egoera zalantzakorrak. Gaztediaren gehiena ikaslea da edo bertzenaz paroan dago. Eta bertzalde,



«Gaur egun jendea ez da lehen bezala ateratzen besta egitera. Larunbatean pixka bat eta nahikoa»

gurasoek ez diete dirua lehen bezala ematen. Lehen jendea larunbata eta igandetan ateratzen zen. Orain larunbatetan bakarrik. Gaur egun mundu guziak kontu haundiagoz gastatzen du duen dirua, seguru gainera!. Duela urte gutti batzuk, larunbat batean adibidez, orain baino doble jende etorriko zen. Bordatxo ireki eta berehala 500-800 lagun sartuko ziren eta gainerakoak beranduxeago. Jendea gehiago banatzen zen. Gaur egun bi terdiak arte gehienbat ostatueta negoten da jendea eta ostatuak itxi ondotik etorriko dira Bordatxora. Horrek izugarri murrizten digu margena, lanerako bi ordu bakarrik gelditzen zaigu.

Lehen ostatueta hogeitakubata eta zerbeza bat saltzen zen. Orain hogeitamar



«Nire ustez krisia asteburutako martxan ere nabaritzen ari gara.

Gazte gehiena ikaslea da edo bertzenaz paroan dago eta gurasoek ez diete dirua lehen bezala ematen»

zurito eta kubata bat.

**ttipi-ttapa.** *Jendea beriz erakartzeko zerbait egitea pentsatu al duzue, aktuazioak edo...*

**Ezkurra.** Gaur egun normalek ateratzen den zerbait ekartzeak, 'Sabina' edo 'La Orquesta Mondragón' edo... milioi dextente balio du eta ezinezkoa da errentagarri izatea. Garestiegiak dira irabazirik ateratzeko. Ez pentsa hemen bakarrik denik. 'Erne' eta holakoetan ere aktuazioren bat ekartzen dutenean, jendez beteko da baina ez da dirurik gelditzen. Dena dela Bordatxo jendea gehiago edo guttiago gustatu, hortxe dago. Hogeitakubata eta bertzenaz paroan dagoela eta inpaktu izugarria izan du eta du oraindik orain zona mailan.

Testua: Joxemanuel IRIGOIEN

## Etxebizitzak

• **Elizondon** 130m<sup>2</sup>tako pisu mobleztatua eta 25m<sup>2</sup>-tako garajea salgai. ☎ 580267 (1etatik 2etara).

• **Leitzan** pisua salgai. Sukaldea, 3 logela, egongela bainugela eta despentsa. ☎ 277531 (gauzez).

• **Elizondon** pisu tiki eta ekonomikoa alokatuko nuke. ☎ 580560.

• **Sunbillan** baserria alokatzen da, granja eta terrenoarekin. ☎ 637306 (arratseko 8etatik aurrera).

• **Baztan-Bidasoa** inguruan baserria erosiko nuke. ☎ 943-427869.

• **Bera-Alkaiagan** pisua eta garajea salgai. ☎ 630552.

• **Beran** pisua salgai. ☎ 630272.

• **Elizondon** 70 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. 7.200.000pzta. ☎ 581089 (9etatik aurrera).

## Lana

• **Lana** egingo nuke errepartoan, 3.500 kilotik behitiko ibilgailuarekin edo nere kotxearekin. Larunbat eta igandea ere bai. ☎ 451521 (arratsetan).

• **Pertsona** bat behar da, hobe gizonezkoa bada, Beran bizi den adineko bat gauzez zaintzeko. ☎ 635036 (goizeko 8etatik 11etara).

• **23** urtetako ikasle batek asteburuetan eta udan lan eginen luke. Jatetxetan aritua. ☎ 453312 (Baztan).

## Salerosketak

• **Furgoneta** salgai, Leyland Freix Rower, NA-N, tarjeta komarkala publikoa. ☎ 510132 (eguerditan).

• **Simca 1200** NA-H salgai. Merke. ☎ 630413.

• **Ordenagailua** PC 1512, momitore eta 6 jokorekin. Gainera Wordstar programarekin. 65.000 pezeta. ☎ 630419 (7-8etara).

• **Komedoreko** 6 aulki, zabaltzen den mahai handia eta kuadroa salgai. Dena berria dago. ☎ 510574.

• **Sukaldeko** mahaia, bi aulki eta bi taburete salga. ☎ 631218 (arratsetan).

• **Alfa-Laval** ordeñadora salgai modu onean. Ongi zaindua. ☎ 634133.

• **Donezteben** 104 m<sup>2</sup>ko bajera eta 198 m<sup>2</sup>ko baratzarekin salgai. ☎ 450115.

• **Ohatze** berria, 2 koltxoirekin salgai, 8.000 pezetatan. Martinika, Errekondoa 1, I.D, Lesaka.

• **Bultaco Sherpa 250** motoa salgai, gutti ibilitakoa. ☎ 453141.

• **Gimnasia** egiteko bigarren eskuko bizikleta estatika erosiko nuke. ☎ 630421.

• **Puch** Mini Cross 49cc 74 trukatur salgai 70.000 pezetatan. Ongi dago. ☎ 610865.

• **Seat** Ibiza Diesel salgai. 5 urte eta 5 ate. ☎ 610872.

• **Collie** zakurkumeak salgai. ☎ 634027.

## Denetarik

• **Bi neska** behar dira Iruñean (Txantrean) pisubat konpartitzeko. ☎ 121115 (8etatik aurrera deitu).

• **Beran** zeramika taillerra klaseak ematen dira. ☎ 630227 (1,30etatik 3etara).

• **Trineoa** karriatzeko ibiltzen dituzten arrazako txakurbikotea hartuko nuke. ☎ 943-603229 (Jokine).

• **Etxeko sukaldea** la-bearekin interesatuko litzaiguke. ☎ 630286.

## Harremanak

• **Lesakako** Sandra M. zorionak zure 15. urtebetetzeagatik (apirilak 11). Espero dugu egun zoragarri bat igarotzea. IMAMTAT.

• **Doneztebeko** Natalia Eskuderori: zorionak zure urtebetetzean. Muxu asko eta ongi pasa. Zure familia.

• **Amairuko** Izaskunen-tzat zorionak zure urtebetetzeagatik. Ea noiz ekartzen duzun txanpain piska bat ospatzeko. Zure laguna Pili.

• **Sarako** Guy Mounho eta Zugarramurdiko Maite Goienetxeri zorionak zuen urte betetzean. S. Agerre eta M. Mendiberri.

• **Erratzuko** Xabi, Kotte, Juan M<sup>a</sup> eta Luisentzat. Prestatzen ahal dituzue sakelak guri konbidatzeko. "Freixenet" (ahal baduzue). Zorionak. Taldeko neskak.

• **Leitzako** Juanjo Lazkanori: zorionak zure urtebetetzean, ea noiz egiten dugun afari bat elkarrekin. Goizuetako lagun batzuk.

• **Lesakako** Mikel M. rentzat: zorionak zure 15. urtebetetzeagatik (apirilak 15). Goraintziak Andoni Bangoren partez.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua: .....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

**ttipi-ttapa**

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

**ttipi-ttapa** ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK .....

HELBIDEA .....

HERRIA ..... Tfnoa: .....

**ttipi-ttapa**

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

# SAN MARTIN LANBIDE ESKOLA

Tfnoa: 59 20 06 – Oronotz-Mugairi



• **MEKANIKA:** ibilgailu edo kotxeen mekanika, traktoreak, soldadura...

• **OIHANZANTZA** edo **FORESTALA**

• **NEKAZARITZA** eta **MEKANIKA**

• **OSTALARITZA, PUERIKULTURA**

Bi urtez. Eskolak, jantokia eta logelak ere badauzka.

**Praktikak:**

Aste bat eskolan eta bertzea, lantegietan praktikak egiten.

**Nor matrikula daiteke?**

OHO edo EGB egin duena, nahiz eta "Graduado Escolar" ez izan.

**EUSKARAZ eta ERDARAZ**



## KOMUNIOAK

Ia bertan, aurtengo  
Komuniotarako erreordatorioak  
aukera daitezke

**FOTO GOIKO**

Altzate 26, Tfnoa eta faxa: 630515 - BERA

5.400 Harpidedun  
18.500 Irakurle

*ttipi-ttapa*

**HAMABOSTEKARIA**

# CRISTALERIA VELATE



Jakinerazten da:

**climalit**, hotza, beroa eta soinetatik babestuko zaituen egiazko kristal doblea.

## ***Kasu imitazioekin!***

Egiazkoak diren **climalit** kristalek **climalit** marka daramate hiru tokitan (etiketan, kristalean eta perfilean)

**climalit**, 10 urteko garantia

.....  
**DELEGAZIOAK:**

**ELIZONDO**

Pedro Axular karrika, 1  
Tfnoa: 58 08 25

**IRUÑEA**

Villava etorbidea 12 Behea  
Tfnoa: 13 20 21

**DONEZTEBE**

Mercaderes 5  
Tfnoa: 45 09 91

.....

# ALMACENES ETXANIZ, S.A.



Lesakako Iturria anaiak

IRUNen, Juan Arana, 3 - Tfnoa eta faxa: (943) 611767

*Apirilan oferta ugari  
moble, grifo eta  
osagarrietan*

.....  
*Gasoleo eta gas  
kalefakzioen  
instalazio presupuestoak  
egiten ditugu*

**Leśaka eta Berara zerbitzua egunero**